

Irakaskuntza gida

1. Ikastaroaren deskribapena

Ikastaroa merkataritza zuzenbidean interesatua dagoen edonori zuzendua dago, bereziki zuzenbideko edo ekonomia eta enpresa ikasketak burutu nahi dituzten ikasleei. Ematen zaien materiala gai desberdinen funtsezko azalpen bat da. Gai horietan sakonago murgiltzeko aukera izango dute aipatzen diren irakurketa gehigarrien bitartez. Irakurritako gai horiei buruzko erreflexio bat egiteko beste aukera bat proposaturiko kasu praktikoak lantzekoa izango da.

2. Helburuak

Lortu nahi diren emaitzak bi dira nagusiki:

- a) Merkataritza zuzenbidearen kontzeptua ulertzea eta zuzenbide pribatuaren barnean kokatzea.
- b) Jakitea nor kontsideratu dezakegun merkatarari edo enpresari indarrean dagoen zuzenbidearen ikuspegitik. Eta ezagutzea merkatarari edo enpresari izateagatik pertsona fisiko edo juridikoei aplikagarria zaien araudi berezia (merkatarariaren estatutua) ezagutzea.

3. Gaitasunak

- a) Merkataritza zuzenbidea identifikatu eta iturri nagusiak ezagutu.
- b) Merkatarariaren figura juridikoa ulertu eta dagokion eraentza identifikatu.
- c) Merkatarariaren estatutoari dagozkion iturri juridikoak erabiltzen ikasi.

4. Ikasgaiak

1. Ikasgaia. Merkataritza Zuzenbidea. Kontzeptua.
2. Ikasgaia. Iturriak.
3. Ikasgaia. Merkataria.
4. Ikasgaia. Merkataritzako erregistroa.
5. Ikasgaia. Kontabilitatea.
6. Ikasgaia. Merkatarariaren ordezkapena.

5. Aurre baldintzak.

Aurkezten diren gaiak enpresan interesatua dagoen edonorrek ulertu ditzake printzipioz. Egia da zuzenbidearen kontzeptua eta iturriak ezagutzeak erreztu egingo duela irakurketa eta irakurritako ondorio guztietaz jabetzea posible egingo duela, baina zuzenbidearen aurre ezagupenik ez izanda ere irakasgaia baliogarria izan daiteke enpresa munduarekin lotura duen edozeinentzako.

6. Metodologia.

Zuzenbideko gaiak izanda ezin bestezkoa da testuak irakurtzerakoan legeak ondoan izatea. Irakurtzen den guztia lege desberdinen azalpena eta interpretazioa da, beraz legea bera irakurri behar da irakasgaiarekin batera. Interesgarria da proposatzen diren ariketak egitea, berriro ere dagokion legea kontutan izanda, irakurritakoari buruzko erreflexioak egin ahal izateko. Honela irakurleak ikusten du ulertu duen eta noraino azaldu nahi izan zaiona. Lagungarria da baita ere jurisprudentzia irakurtzea legearen aplikazioa ikusteko errealitatean ematen diren gatazkak konpontzerakoan.

7. Kronograma.

Aurkezten diren ikasgaiak laburrak dira, baina funtsezkoa jasoz egin dira, beraz denbora eman behar zaio bakoitzari. Ikasgai bakoitza irakurtzeak, dagokion legea erabiliz eta ariketa praktikoa landuz sei bat ordu eramango du. Hortik aurrera interesatua dagoen irakurleak sakondu dezake gai bakoitza proposatzen diren eskuliburu eta lanekin, eta hor berak ikusiko du noraino iritxi daiketen.